



**MARIA VICTORIA JOARISTI OLARIAGA
UDALAREN IDAZKARI BEZALA.**

ZIURTATZEN DUT: Udal Osoak 2009ko apirilaren 1ean egindako batzaraldian, ondorengo erabakia hartu zuela, beste batzuen artean:

**“GURUTZE AUZOAN FRONTOI BALIO ANITZA ERAIKITZEKO
PROIEKTUAN SARTUTAKO OBRAK BEHIN BEHINGOZ ESLEITZEKO
PROPOSAMENA**

“Gurutze auzoan frontoi balio anitza eraikitzeako proiektuak” Toki Inbertsioetarako Estatuaren Diru Laguntza lortu zuenez, obrak burutu ahal izateko adjudikazio fasea martxan jarri zen, 09/02/25ean Udal Osoak hartutako erabakiaren bidez.

Horretarako emandako epean hiru eskaintza jaso dira. Kontratazio Mahaiak 2009/03/25ean bilduta, proposamenak irekitzeari ekin zion. Udal Arkitekto Teknikoak dagokion txostena idatzi du eta Kontratazio Mahaiak, 09/03/31ean egindako bilkuran esleipen proposamena luzatu du.

Gauzak horrela, Obrak eta Zerbitzuak Batzordeak, joan den martxoaren 31ean luzatutako diktamenaren arabera, Udalbatzak ondorengo erabakia hartzen du:

1.- Gedi, Promociones e Infraestructuras, S.A.-ri behin behingoz esleitzea “Gurutze auzoan frontoi balio anitza eraikitzeako proiektua”n sartutako lanei dagokien obra-kontratua, 310.324,22 euroko kopuruan (BEZ barne) eta lau hilabetetan egiteko.

2.- Aipatutako enpresak 13.376,04 euroko behin betiko garantia aurkeztu beharko du eta baldintza administratiboen 22. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du 10 eguneko epean.”

Eta horrela jasota gera dadin dagokion espedientean, ziurtagiri hau ematen da, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua arabera Alkate Jna.ren On-Iritziarekin batera, Oiartzunen, bi mila eta bederatziko apirilaren bian.

O.I.
ALKATEAK,

